

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Berrantolatzea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza

2020ko ekainaren 3an egindako ohiko bilkuran, erabaki zen berrantolatzea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza; zehazki, eranskinean ezartzea lehendik existitzen ziren bi epigrafe, bata zaborra biltzeko zerbitzu publikoaren tasari dagokiona eta, bestea, udal hilerriari dagokiona; eta kentzea tasak ez baizik eta prezio publikoak diren beste batzuk. Beraz, honela geratuko da ordenantza:

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz, eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik tasak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga egitatea, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

2. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte edo haien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; horiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

- a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik egin behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeen pertsonak.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. Kuota

9. artikulua

Zerga kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honako hau izango da: zerga oinarriari tarifa bat edo horretarako propio ezarritako kopuru bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

Zerbitzua edo egintza eskaintzarekin batera sortzen da tasa; nolahi ere, lanari ekin aurretik zenbateko osoa edo zati bat jartzeko eska daiteke.

VIII. Likidazioa eta diru sarrera

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapena

2020ko urtarrilaren 1ean hasiko da aplikatzen ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du harik eta berriaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA**1. epigrafea: zaborra biltzeko zerbitzu publikoaren tasa**

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzeko zerbitzuarengatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

Zerga egitatea

3. artikulua

Tasaren zerga egitatea da etxeetako zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzea, bai eta ostatu eta lokal eta establezimenduetakoak ere, non jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren, nahiz bilketa zuzenean udalak kudeatuta egin, nahiz partzuergo edo bestelako kudeaketa bideren batetik.

Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horietako jabe, direla horietako maizter edo gozamen-dun, pre-karioan izan ala ez.

2. Zergadunaren orde-zko subjektu pasiboa etxebizitza edo lokalaren jabea izango da. Jabeak, hala dagokionean, ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dizkie etxebizitza edo lokala erabiltzen dutenei, hau da, zerbitzuaren onuradunei.

Zerga oinarria

5. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, tarifi-n ezarritako dagoen bezala.

Kuota

6. artikulua

Kuota zehazteko, aurreko artikuluko arabera ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

Sortzapena

7. artikulua

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko bete-beharra. Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarritako eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

Arau hausteak eta zehapenak

8. artikulua

Zergen arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagokion zehapenaren kasuan ere, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio.

Tarifak

Etxebizitzak: 76,70 euro.

Merkataritza lokalak: 76,70 euro.

Saltegiak: 153,32 euro.

Ostalaritza, kirolak eta beste batzuk:

Txokoak: 214,72 euro.

Tabernak, kafetegiak: 214,72 euro.

Sardexka bateko jatetxeak: 368,18 euro.

Sardexka biko jatetxeak: 459,94 euro.

Ostatuak, landa turismoa: 188,56 euro.

Hotela: 188,56 euro.

Adinekoen egoitza, 20 plaza arte: 188,56 euro.

Adinekoen egoitza, 21-40 plaza: 316,16 euro.

Adinekoen egoitza, 40 plazatik gora: 443,68 euro.

Kirol zona: 635,18 euro.

Gizarte zentroak: 136,38 euro.

Industria (Goiango industrialdea izan ezik):

500 metro koadro edo gutxiago: 169,62 euro.

501 – 1.000 metro koadro: 620,68 euro.

1.001 – 3.000 metro koadro: 951,22 euro.

3.001 – 10.000 metro koadro: 1.426,90 euro.

10.000 metro koadrotik gora: 1.902,58 euro.

2. epigrafea: udal hilerria

Ehorzketa: zerbitzu kostua:

Horma-hilobia alokatzea (10 urte): 100 euro.

Luzapena (5 urte): 50 euro.

Panteoia eraikitzeko lursaila: 150 euro metro koadroko.

Legutio, 2020ko ekainaren 4a

Alkate-lehendakaria
JON ZUAZO ZUBERO